

Deialdia, euskara itzultzaileen bost lanpostu betetzeko oposizio bidez, ari daitezen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura

(Deialdia onetsi zen 2024ko ekainaren 24ko 2477/2024 Ebazpenaren bidez, eta argitara eman zen 134. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 1ean)

ZENBAIT OHAR GARRANTZITSU
OPOSIZIO HONETAN ONARTUTAKO IZANGAIENDAKO

LEHENBIZIKOA:

Izangaiei oroitarazten zaie oposizioko lehen proba **2024ko abenduaren 14ko 10:00etan** hasiko dela eta bertan azaldu beharko dutela aldean **NANA**, **pasaporte** edo **gidabaimena** dutela, beren nortasuna egiaztatzeko, bai eta **boligrafoa** ere, beltza edo urdin iluna, plika betetzeko.

Proba hori **NUPen** Arrosadiko campuseko **ikasgategian** egingen da, **3. solairuan**, izangaia abizenaren arabera **honela banatuta**:

A-305 ikasgela: AGOTetik BLANCOr.

A-306 ikasgela: BLASetik GOMEZera.

A-307 ikasgela: GONZALEZetik LARRAÑAGAr.

A-308 ikasgela: LARRAYOZetik SAINZera.

A-316 ikasgela: SALASetik ZUFIAUR-era.

BIGARRENA:

Ariketa guztietan baloratuko ditugu itzulpenaren zehaztasuna, zuzentasuna, terminologiaren eta estiloaren egokitasuna, kohesioa, koherentzia, adierazkortasuna eta komunikagarritasuna.

HIRUGARRENA:

Izangaiek nahi adina hiztegi eraman ditzakete lehen probara, baina argialetxeek argitaratutako hiztegiak izan behar dira, ez norberak egindakoak.

LAUGARRENA:

Gai-zerrendako II. zatiko 16. gaia, *Nafarroako Toponimia Erabiltzeko Oinarrizko Jarraibide Teknikoak*. *Nafarroako Gobernuaren argitalpena (2019)* izenekoa: jarraibideak aintzat hartu behar dira, baina bukaeran dakarren herrien zerrenda ez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 8an.

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEKO BURUA

Usoa Wyssenbach Ibarra